

# NAZIONALISMOA ETA BESTE IDEOLOGIA GARAIKIDE

Francisco Letamendia ("Ortzi")

7
GAIAK

Egun punta-puntako diren eta Euskal Herriarekin zerikusi handia duten bi gaiez aritzen da *Ortzi* liburu honetan: nazionalismoaz eta bortxaz, hauen inguruan landu diren teoria inportanteenak azalduz.

Estatu-nazionalismo eta estatu-nazionalismo ez direnen ezaugarri desberdinak aztertzen dira: historiaz eta historia mitikoaz baliatzea legitimazio gisa; estatu-nazio kontzeptuari hasiera eman zion Frantziako iraultzaren irudipenezko liberalismoa; lehen euskal nazionalismoa osatzen duten elementuak; nazionalismo anti-estatalei buruzko hastapenak...

Bortxari dagokionez, honen inguruan sortu diren hiru joera nagusien berri ematen da: Frankfort-eko eskola marxista izenekoaren inguruan bildu dena (Fromm, Marcuse...); Sartre-ren *Arrazoi dialektikoaren kritika* lanean hasi eta Fanon-en *Lurreko kondenatuak* liburuan jarraipena duena; eta ezkerreko nietzschetarra dei daitekeena (Foucault, Lefebvre...) . Horrekin batera ere, gerra-mota desberdinei buruzko teoriak arakatzen dira eta gaur egun bortxaz pentsatu eta burura datorgikuna: terrorismoa.